

Musika

Al vent

Duela hilabete edo, mahai-inguru batean parte hartu nuen, Donostian. Gaia: frankismoaren azken urteetako eta trantsizio delakoaren hasierako kantariak askatasunari egindako ekarpena. Ez zen jende asko inguratu, baina pare bat ordu aritu ginen, aski giro gozoan, Arantxa Urretabizkaiaren gidaritzapean. Arantxa eta bioz gain, Elisa Serna eta Fermin Valentzia kantariak eta Iñaki Zarata musika kritikaria aritu ginen. Jose Antonio Labordeta ere etortzekoa zen, baina osasunez patal dabilela eta, ezin etorria adierazi zuen, gutun baten bidez.

Joxerra Garzia

MAHAI-INGURUA gaztelaniaz izan baitzen, “kantautore” hitza erabili genuen hasieran, harik eta konturatu ginen arte hitz horren azpian ez dagoela inolako kontzepturik. Gaztelaniak izena jarri dionez, ordea, zerbait izan behar duela iruditzen zaigu.

Wikipedian ere begiratu nuen, nola ez: kantatzen dituen kantu gehienek musika eta letra berak egiten dituela omen da *kantautore*. Beraz, Laboa ez eta Alex Ubago bai; Pako Ibañez ez baina José Luis Perales bai... ederra atarramendua!

Niretzat, bi kantari mota daude: kantagintza jardun estetiko pertsonal pribatu moduan ulertzen dutenak, eta kantagintza herrigintzaren baitako tresnatzat darabiltenak. Esan gabe doa niri behintzat bigarren mota horixe bakarrik interesatzen zaidala.

Baina zehaztu dezadan zer esan nahi dudan “herrigintza” diodanean, erabiliaren erabiliz usteldu zaigun hitza baita. Ez du noski esan nahi kantuek esplizitoki politikoak edo ideologikoak behar dutenik izan. Bai, ordea, kantu horiek sortu eta kantatzen direneko komunitatearen ispilu eta euskarri izateko asmo agerikoa dutela. Jakina: alde horretatik askoz ere funtzio garrantzitsuagoa betetzen zuen kantagintzak frankismoan orain baino. Ez, ordea, orain funtziorik ez duelako, baizik eta orduan kantagintza zelako funtzio hori bete zezakeen jardun ia bakarra (euskal komunikatearen kasuan bereziki).

Inoizko bareen dator aurtengo Durangoko Azoka, funtsezko polemikarik gabe, akaso iaztik hona izan dugun etengabeko hausnarketak haren izateari eta funtzioei buruzko zalantzak oro argi-

tu dituelako edo. Kartelak berak ere ez du aurtengo ika-mikarik sorrarazi, baina niri esanguratsua iruditu zait nola banatu dituen egileak esaldi nagusiaren lerroak: *44 / Durangoko / euskal liburu / eta disko azoka*. Esanguratsua, diot, izan ere nago errealitatean ere (hots, gu gehienon pertzepzioan), liburuena baino behezagoko apal batean ote dauden (dauzkagun) diskoak.

Nik, ordea, garbi daukat kantagintza, lehenago azaldu dudana bezalakoa bada behintzat, liburugintza bezain garrantzitsua (“estrategikoa” esatekotan egon naiz) dela.

Kataluniari abegitsu begira dago aurtengo Durangoko Azoka. Nova Cançó delakoak 50 urte bete dituen honetan, aukera bikaina genuke gure strategiak errebisatzeko. Horretarako, ordea, irizpideak eta lehentasunak finkatu behar dira aurrena.

Xabier Leteri eman diote aurtengo Euskadi Saria. Nik garbi daukat hori eta gehiago merezi duela. Saria

ekarri dion poema liburuaren maila ukatu gabe, ordea, nire ustez bere kantuak dira Letek herri honi, gu guztioi, egin digun ekarpenik handiena.

Bide (eta tristura handi) batez esanda: aipatutako mahai-inguru hori Donostiako Antigua auzoko Lugaritz Kultur Etxean izan zen, Imanol Larzabal aretoan. Hemen eta orain, basoerdiak hartzea beste herrigintza lanik ezagutzen ez zaien miserable batzuk setatuta daude Imanolen izena eta izana, haren kantuak, gure memoriatik ezabatzen.

Beste batzuek, ordea, hemen jarraituko dugu, garena izaten lagundu digutenen izen-izanak aldarrikatzen. *Al vent*, jakina, baina baita *lau haizeetara* ere. n

Saria ekarri dion poema liburuaren maila ukatu gabe, ordea, nire ustez bere kantuak dira Letek herri honi, gu guztioi, egin digun ekarpenik handiena

IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

